

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2323

AGINDUA, 2023ko apirilaren 27koa, Hezkuntzako sailburuarena, Bilboko (Bizkaia) «Bilboko Haurreskola-Mina del Morro» Partzuergoko Haur Eskolaren izen espezifikoaren aldaketa onartzeko dena.

Bilboko (Bizkaia) Partzuergoko Haurreskolak «Bilboko Haurreskola-Mina del Morro» erakunde titularraren legezko ordezkariak hasarazitako espedienteaz aztertu da. Eskaeraren xedea ikaste-txearen izen espezifikoa aldatzea da.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek ikusi dira: azaroaren 16ko 215/2004 Dekretua (azaroaren 19ko EHAA), 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxienezko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulua batzuk indarrean iraunarazten dituenaz (azken dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan); abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua (abenduaren 31ko EHAA), 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituenaz; 2008ko apirilaren 10eko Agindua (maiatzaren 19ko EHAA), azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoa garatzen duena; bai eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ere. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Bilboko udalerrian (Bizkaia), Sagarminaga kaleko 30.ean dagoen «Bilboko Haurreskola-Mina del Morro» Haur Eskolaren izen espezifikoa aldatzea onartzen da; aurrerantzean, «Bilboko Haurreskola-Larreagaburu» izango du izena. Haurreskolak 015459 eta 48016200 kode-zenbakiak ditu.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 27a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.